Talde ekologista batek kirolaz hitzegiten duenean, ez du hori egiten pertsonen osasunerako ekintza mota honen komenientzia gogoratzeko, ezta bere praktikanteen arteko adiskidetasun loturak eta lehia osasuntsua eraginez bere praktikaren ontasuna ezagutzeko.

Aspektu hoiek, bistan denez, egiak dira baina -zoritxarrez- ekologistak kirol gaiera hurbiltzen direnean, inguru-giroan eta -batez ere- espazio naturaletan kirol ekintza askok dituzten eragin negatiboak kritikatzeko ezinbesteko beharrean aurkitzen direlako egiten dute hori.

Gaurregun zaila da kirol ekintza ugariek ingurunean duten eragin latza ukatzea. Kasu batzutan, eskiaren kasuan adibidez orduraarte oso gutxi aldatu diren lekuetara sartzeko bide berri asko eta azpiegitura garrantzitsuen eraiketa izaten da. Bestetan berriz, baliabide naturalen (Ura, fauna...) gainesplotazioa eta ekosistemen aldaketa gertatzen da, golf zelaietan, kirol arrantza eta ehizean gertatzen den bezala. Batzutan, kirol praktikaren ondorioa naturaren suntsidura garbi eta gogorrean zehazten da. Horrela gertatzen da trialarekin, beste mendi motoziklismo ekintzetan eta lur guztietako ibilgailuekin, batez ere 4X4 zoritxarreko ibilgailuen ugaltzearekin.

Kasu batzutan, gizakia eta natura basati eta gutxi aldatuaren arteko harramana helburu bezala duten ohizko ekintza kaltegabeek ere, hasieran mirestu eta disfrutatu nahi zuen horrengan aldaketa larriak sortzen dituzte. Hori gertatzen da adibidez mendi eta eskalada ekintzen masifikazioarekin. Azken hamarkadatan, "abenturazko kirolak" deiturikoen hedatzearekin batera, beraien atzetik arrasto onartezinak uzten dituzte: zaborrak, flora, fauna eta lurragan kalteak, etab.

Bere buruak benetako kirolaritzat dutenak ere, bai mendi, ehiza, arrantza eta baita motorreko kirol ekintzen arloan ere, igandekari, eskupetari eta hooliganen jarrerekin haserretzen diren lehenak dira. Kirol edo aisirako instalazioek natura eta paisaiagan duten eragin larriari ere uko egiten diotenak asko dira. baina dudarik gabe kaltea hor dago, eta gizarteko atal desberdinen ahaleginak bildu egin behar dira autosuntsiketa joera honekin bukatzeko. Ahalegin honetan elkartasuna behar beharrezkoa da.

XAVIER PASTOR
GREENPEACE ESPAINIAKO Presidentea

EXENTO DE CLORO
TCF
PAPEL ECOLOGICO

KIROL ETA AISI-JOLAS EKINTZEK NATURAGAN DUTEN ERAGINA

ASTELEHENA 22

Arratsaldeko 19,15etan.- Kultur Etxea. (euskeraz)
XIV orduko ibilaldiaren eta IBILTARI liburuaren aurkezpena (Ararlako Adiskideak)

Arratsaldeko 20,00tan.- Kultur Etxea. (euskeraz)
Gaia: "IBILTARITZA, MENDIZALETASUNA ETA OHIZKO KIROLAK NATURAN".

MAHAI INGURUA:

- José Ramón Martín Urreta. "TXAPU". Mendizale eta ekologista.
- Ramón Elósegui. Biologoa.
- Antxon Iturriza. "Aizpel". Kazetaria, Mendi informatzailea.

Moderatzailea: Txema Urrutia. Kazetaria.

ASTEARTEA 23

Arratsaldeko 20,00tan.- Kultur Etxea.
Gaia: "MOTOREZ ERAGINDAKO EBILGAILUAK NATURAN"

MAHAI INGURUA:

- Juan Ramón Fernández Lafuente "J.R.". Euskal Automobilismo Elkartea. Espainiar Automobilismo Elkartea. Off-Road/Komisioa 4 x 4 T.T.
- Emili Tomas. Alpinista. Mountain Wildernessko Batzar Nagusia.
- Joan del Peso. Kataluiniako Generalitateko Ingurugiro Idazkari Orde Nagusia.
- Alex Baylin. Ixileko ehiztaria.

Moderatzailea: Julen Rekondo. Kimikaria eta Ingurugiro Aholkularia.

ASTEAZKENA 24

Arratsaldeko 20,00tan.- Kultur Etxea.
Gaia: "NATURAN MODAN DAUDEN KIROLAK"

MAHAI INGURUA:

- Javier Benayas del Alamo. Madrilgo UAko Ekologia Saileko Irakaslea. Kirol Ekintza Turistikoen eraginari buruzko ikerketan Espezialista.
- Pello Ruiz Cabestany. Txirrindularia. Kirol Komentarista.
- Isabel Dumall. Eskialaria.
- Alex Tetuan. LIKKEN Mendi Aldizkariko Idazlaritza Burua.

Moderatzailea: Juan Laredo. Natura zalea.

OSTEGUNA 25

Arratsaldeko 20,00etan.- Kultur Etxea.
Gaia: "MENDI GARAIA ETA ESPEDIZIO HANDIAK"

MAHAI INGURUA:

- Juanjo San Sebastián. Alpinista.
- Josu Iztueta. Kirolari eta Ingurugiro Hezitzailea.
- Felipe Uriarte. Goi Mendiko Gidaria.
- Iñaki Antigüedad. Irakaslea, EHUko ikertzailea, Hidrologian doktore eta ikerketa Polarretako Partaide.

Moderatzailea: Juan Manuel Sotillos.
Mendi, Bidaia eta Abenturan kazetari espezialista.

OSTIRALA 26

Arratsaldeko 20,00tan.- Kultur Etxea.

"JOAQUIN ARAUJO ETA MIGUEL DELIBES DE CASTROREN ELKARRIZKETAK"

Gaia:

"NATURAREN KONTSERBAZIOAREN ERRONKA NAGUSIAK GAURKO GIZARTEAN"

LAGUNTZAILEAK:
TOLOSAKO HERRI-ELKARTEAK
IRUDIMENA KULTUR ELKARTEA

ERAKUSKETA

AMUNDSENEN ARRASTO ATZETIK

1911ean Roald Amundsen norvegiar esploratzaileak esplorazio jestarik handienetariko bat egin zuen: Hego Buruaren konkista, leku berdinera aste batzuk beranduago iritsi zen Scott britainiarrarekin lehia erakargarrian. Garai haietan Tolosan ere kirol berri baten, eskiaren hasiera ere gogoz bizi zen. Mustadeko norvegiarren eskutik iritxi zen kirol hau bi urte lehenago. 1911ean Amundsen Hego Burura iritxi zenean, Eaux-Bonnes (Frantzian) ospatuko Eski Saltoen Nazioarteko Lehiaketan, Alfonso XIII.aren Kopa Tolosar Eski Elkartearentzat Killen norvegiarrak lortu zuen.

Natur zientzien Museoari esker Amundsenek egindako esplorazio ezberdinetako argazkiak lortu ahal izan ditugu. Madril eta Bartzelonarekin batera Tolosa Estatu osoko eski abiapuntu bat denez, Amundsenen argazkiekin batera Tolosan eski kirolean egiten diren ekintzen dokumentu eta argazkiak biltzea pentsatu dugu. Horretaz gain, Eskandinabian kirol honen hastapenen erakusketa txiki bat ere agertuko da, guzti honi batasun bat emateko "Amundsenen arrasto atzetik" izena eman diogularik.

Espedizio handien, kirol honen ibilbide historiko bat eta Tolosak kirol honetan bete duen eta betetzen duen papera bisitariari eskeintzea da erakusketa honen helburua. Aldi berean baliabide eta materialeen eboluzioa eta praktikatzen den ingurune naturalari buruzko konklusioak aurkeztuko dira.

Madrilgo Natur Zientzien Museoa

Egunak: 1996ko Apirilak 19tik Maiatzak 5a.
Lekua: Aranburu Jauregia.
Ordutegia: Lanegunak: 6-retatik. 9-etara.
Jaiegunak: 12-etatik. 2-etara.
6-retatik. 9-etara.

LAGUNTZAILEAK:

PACO TUDURI
JOSU IZTUETA
ANGEL ORTIZ
TXIKI PLAZAS
ARALAR KIROLAK

LANDARE ETA LOREEN MERKATU BEREZIA

LARUNBATA 20

Goizeko 8retatik aurrera, Tolosako Udaleko Merkatuaren lagunen komisioaren laguntzarekin batera, Landare eta Loreen Merkatu Berezi bat ospatuko da.

LEKUA: BERDURA PLAZA.

ESKOLAKO EKINTZAK

- Zuhaitz landaketa.
- Argazki rallya.
- Erakusketara bisitaldia.

PARTAIDEAK:

TOLOSAKO ARGAZKILARIAK

- AGUIRRE
- ALAI
- ARGI
- FERNANDO
- RICHARD
- JOSEBA URRETABIZKAIA
- KARLIS
- KLISK
- MARTIN

MIGUEL DELIBES DE CASTRO

Espainiar historia argitaratzailean, naturari buruzko entziklopediarik hobena idazten lagundu zion Felix Rodriguez de la Fuenteri. Bere lehen proiekzioa biologo izatera irixtearekin batera gertatu zen. Ornodunen gure faunen ikerketa zientifikoaren alorrean ere ate handitik sartu zen. Katajineta, katamotza, Arrano Errealari buruzko bere lan zoragarriek berriro nazioartean oihartzuna izan zuten.

Doñanako Egutegi Biologikoko zuzendaritza, bukatu berria duen epe bat da. Baina horrek ez zion denborarik kendu beste entziklopedia, hitzaldi, taldeko eta banakako liburuetan laguntza ederrak eskeintzeko. Idazle aparta, komunikatzaile atsegin eta eragilea, polemista argia, bizitzako irudi konplexuenen azterketara berriro itzultzen da Miguel Delibes de Castro. Inork baino hobeto kontatuko digu eta zientzilari-humanista honengandik, bizidun denaren jarraipenarekin konprometaturiko jakintza baten alderdi garrantzitsuak ikasten jarraituko dugu.

Joaquín Araújo

ONUren GLOBAL 500 SARIA



7. NATURAREN IHARDUNALDIAK
7. JORNADAS DE LA NATURALEZA
APIRILAREN 20tik 26ra • LEKUA: KULTUR ETXEA • TOLOSA

BIURRUN/URRETABIZKAIA

KIROLA ETA NATURA • DEPORTE Y NATURALEZA

ZUMARDI 96

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TOLOSAKO UDALA

kutxa fundazioa
fundación kutxa